

2025 • 2026

SAISON KULTURELLE DENBORALDIA

IRAILA-ABENDUA

CIBOURE • ZIBURU



EGITARAUA

Irailaren 11tik urriaren 6ra | p. 4

Eskoletako jolastokietako begetalizazioari buruzko erakusketa

Irailaren 13a, larunbata | p. 5

Kultura denboraldiaren irekiera

Irailaren 20a, larunbata, eta 21a, igandea | p. 6

Ondarearen Europako Jardunaldiak

Urriaren 5a, igandea | p. 7

FestiOrgues – Cindy Castillo-ren kontzertua

Urriaren 1etik 14ra | p. 8 - 9

Ziburuko Points de Vue festibalaren egonaldia

Urriaren 10a, ostirala | p. 10

TKT konpainiaren *presq* ikuskizunaren publikoari aurkeztu aurreko lehenengo emanaldia

Azaroaren 24a, astelehena | p. 12

Alex on the Wire konpainiaren *Main-s Tenant-es* ikuskizuna

Azaroaren 24a, astelehena | p. 14

Lève un peu le bras konpainiaren *KIBI* ikuskizuna

Azaroaren 26a, asteazkena | p. 14

Chriki'z konpainiaren *imagOri* ikuskizuna

Abenduaren 5etik 18ra | p. 16

Eguberri da Ziburun!



Lizentzia 1 : PLATESV-D-2022-006462

Lizentzia 2 : PLATESV-D-2022-006464

Lizentzia 3 : PLATESV-D-2022-006463

2025-2026 Kultur denboraldiko liburuxka

Ziburuko hiria - 05 59 47 26 06 - mairie@mairiedeciboure.com

Argitalpen zuzendaria: Ziburuko auzapeza

Testuak: Kultura, Ondarea eta Elkarte Bizitza saila - Sorkuntza: Altergraf

Orrialdearen prestatzea: Altergraf

Itzulpena: Argia Urrutxi Bizkarra - Argazkiak: Ziburuko hiria, Adobe Stock, Mélissa Rouvinet, Gilles Roussy, Alejandra Barragan, Komcebo, DR

Inprimaketa: Abérardère, Bayonne - Liburuxka hau birziklatutako paper gainean inprimatua da.

AURKEZPENA



“Emozioz, topaketaz eta partekatzez beteriko 2024-2025 denboraldi baten ondoren, pozik aurkezten dizugu bultzadari, orekari eta zirkuari eskainitako kultur urte berri bat!

2025-2026ak inflexio-puntu berri bat markatuko du Ziburuko Hiriak EKO Pyrénées de cirque mugaz gaindiko proiektuan parte-hartzearekin, Pirinioen bi aldeen arteko lankidetzat artistiko programa handinahi batean.

Proiektu honek sorkuntza garaikidea babesteko, artistak epe luzera errezibitzeko eta publikoari aurkikuntza, sorpresa eta harridura uneak eskaintzeko dugun konpromisoa indartzen du. Zirkuak, bere hizkuntza unibertsalarekin eta jendea elkartzeko duen gaitasunarekin, leku nagusia izango du gure aurtengo programazioan. Defendatu nahi ditugun balioak ezin hobeto adieraziko ditu: partekatzea, sormena, konpromiso fisiko eta poetikoa eta besteekiko lotura.

Ziburuko gazteei zuzendutako ekintzak eskaintzen ere jarraituko dugu, hiriko eskoletan ondo finkatuta dagoen hezkuntza artistiko, kultural, zientifiko eta kirol programaren bitartez.

Hemen ere, gonbitea luzatuko diegu artistei lurraldean finkatzeko, elkar-ezagutzeko denbora hartzeko, haien ezagutzak partekatzeko eta irudimen kolektiboa elikatzeko.

Azkenik, gure lankidetzat-ikuspegiari leial, gure tokiko eta mugaz haraindiko bazkideekin harremanak eraikitzen jarraituko dugu, kultura trukearen, elkartasunaren eta indarren metaketaren bidez eraikitzen dela sinesten dugulako.

Denboraldi honi airekoa, ausarta eta deblauki bizia izango delakoaren itxura antzematen zaio. Zuetako asko bertan ikustea espero zaituztegu, harritzeko prest, eta batzuetan oreka galtzeko ere, zuzeneko emanaldien magia hobeto bizitzeko.”

Émilie Dutoya,

Auzapezordea, kultura, ondare eta elkarte bizitzaren arduraduna

Fanny Lascube,

Hizkuntza politikaz arduratzen den ordeko aholkularia

ESKOLETAKO JOLASTOKIEN BEGETALIZAZIOA

IRAILAREN 11TIK URRIAREN 6RA ERAKUSKETA MEDIATEKAN

- 🕒 Irekitze ordutegiak
- 📍 François Rospide Mediateka
- 👤 Publiko guztia
- 🗣️ FR

Hilabete batzuetan zehar, proiektu handinahi bat gauzatzen ari da Ziburuko eskolako jolastokietan. Haurren ongizaterako eta ingurumen-arazoei aurre egiteko diseinatua, gehiegi mineralizatutako espazioak benetako freskotasun-gune bihurtzea du helburu.

Mundruna kenduz, begetalak landatuz eta beste modu batera egokituz, mundu bizidunari dagokion lekua ematea da helburua eta espazio atseginagoak, dibertigarriagoak eta hezigarriagoak sortzea.

Hiriak izapide hau proposatu zien udalerriko eskola guztiei: Marinela eskolak, Ikastolak eskolak bakoitzak bere erara hartu zuten proiektua, haien taldeen eta ikasleen beharretara egokituz.

Espazio berri hauek diseinatzeko, Hiriak diziplina anitzeko talde bati laguntza eskatu dio: paisaia-agentzia bat, hirigile eta artisten kolektibo bat eta diseinatzaile bikote bat.

Elkarrekin, ikastaroak egin dituzte ikasleekin eta haien familiekin, eguneroko erabileretara egokitutako eraketa pertsonalizatuak, iraunkorrak eta estetikoki atseginak eraikitzeko.

Prozesu osoan zehar, haurrak guztiz inplikaturik egon dira.

Ofizioak ezagutu, materialak erabili eta esperimentu praktikoetan parte hartu dute. Eraikuntza-lana ikaskuntza-ingurune gisa bizi izan dute, autonomia, sormena eta erantzukizuna sustatuz.

Lan kolektibo honi balorea emateko, erakusketa bat aurkeztuko da irailean François Rospide Mediatekan.

Erakusketan prozesu osoa aurkeztuko da, haurrekin diseinatutako antolaketa erakutsiko dira eta Ziburuko jolastokietan, naturak bere lekua nola berreskuratu duen azalduko du.



KULTURA DENBORALDIAREN IREKIERA

LARUNBATA, IRAILAREN 13A

DOHAIN

Kultur denboraldi berri honi hasiera emateko, Ziburuko Hiriak itsasertzean zehar ibilaldi poetiko, alai eta akrobatiko batera gonbidatzen zaitu.

Zokoako gotorlekua hondartzatik frontoira, utzi ezazu zure burua eramaten kanpoan egingo den gaudi baten, non zirku garaikideak dantza herrikoia espiritu jaitsuarekin bat egingo duen.

Trebetasun fisikoaren, keinuen poesiaren eta jendarte oneko harreman berrituen artean, inaugurazio gaudi honek murgiltze sentikor eta jaitsu bat eskaintzen du, oinak hondarretan eta bihotza taupaka dituzula

SURCOUF

SACÉKRIPA KONPAINIA (TOLOSA)

Bi gizon, txalupa bat eta mundu oso bat ontzian.

Urrutitik etorrita (edo agian oso urrunetik itzuli berri haien baitatik), poliki-poliki hurbiltzen dira. Oina lurtean jarri baino lehen, gauzak prestatu behar dituzte. Keinu barregarriak, erritual garrantzitsuak.

Uraren gainazalean, traketsarena egiten duten akrobata bikote honek orekarekin, pazientziarekin eta ezegonkortasunarekin jolasten du.

Haien zeharkaldiak bizikidetasunaz, elkarren beharraz, iraulketa saihesteko ahalegin partekatuz hitz egiten du.

Une eten bat, barre, zirku-poesia eta itsasoko zipriztin errealez inguratuta.

Zirkua, arriskua, hezetasun asko... eta gizatasun handia.

Sormena eta antzezpena: Mickael Le Guen
eta Benjamin De Matteis
Produktzioa: Cie Sacékripa

🕒 19:30

📍 Zokoako gotorlekuko hondartza

👤 Publiko guztia

🗨 Mutua



© Sacékripa

EN ATTENDANT LE GRAND SOIR

LE DOUX SUPPLICE KONPAINIA (NÎMES)

Zer gertatuko litzateke zirku dantza-pistara joango balitz?

Zortzi akrobata-dantzarik eta DJ bihurri eta zoro batek dantzaldia irekitzen dute... haien erara.

Dena gozo hasten da, alaitasun handiko eferbeszentzia batean, altxatze sinestezinak, menderatutako irristatzeak eta erritmo itsaskorren artean.

Gero, pixkanaka-pixkanaka, dantza gunea handitu eta ondoko gorputzetara irekitzen da. Oraindik ez dakigu ikuskizun bat den edo ospakizun partekatu baten une bat den.

Biraka egiten dugu, bideak gurutzatzen ditugu, oldarra hartzen dugu... ez da beharrezkoa dantzan jakitea.

Garrantzitsuena bertan egotea da, elkarrekin.

Dantza akrobatikoa, eskuzabala eta ustekabekoa, belaunaldiak elkartzen eta bihotzak berotzen dituena.

Parte-hartzaileak: David Badia, Frédéric Escurat, Tom Gaubig, Guillaume Groulard, Wilmer Marquez, Marta Munoz, Marie Pinguet, Guillaume Sendron, Philipp Vohringer
Idazkera eta zuzendaritza: Pierre-Jean Bréaud
Karpoko begirada: Julie Lefebvre eta Patricia Marinier
Argia: Hervé Lacote

Ekoizpen orokorra: Hervé Lacote, Mathias Flank eta Xavier Warin
Jantziak: Nadia Léon eta Dominique Vidal

Produktzioa: Camille Rault-Verprey

Administrazioa: Aurélie Delescluse

Grafismoa: Sarah Cagnat

Gozatu ezazu bi ikuskizunen artean
janari-kamioiak proposatutako
atsedenaldi gozo batekin!

🕒 21:00

📍 Zokoako frontoia

👤 8 urtetik aurrerako publiko guztia

🗨 Mutua

EKO Pyrénées de Cirque-ren barruan, Hendaia Hiriarekin eta CCN-Malandain Ballet Biarritz-ekin lankidetzan antolatutako ikuskizuna



Interreg POCTEFA



malandain ballet | biarritz



© Ian Grandjean



ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK

42. ediziorako, Ondarearen Europako Jardunaldiak 2025eko irailaren 20an, larunbata, eta 21ean, igandea, izango dira, «Trebetasunen ondarea» gaiaren inguruan. Ziburun, asteburu hau transmititutako trebetasunak, ondarearekin zerikusia duten lanbideak, praktika kolektiboak eta haien memoria bizirik mantentzen duten lekuak erakusteko aukera izango da berriro ere. Bordagaineko altueretatik Zokoako itsasertzearaino, hiriak eta auzoek bisiten, topaketen eta aurkikuntzen erritmoan bibratuko dute. Ondarearen Interpretazio Zentroak, Gotorlekua, Dorreak, Semaforoak eta baita Egiategia upategiak ere atearik

irekiko dituzte istorioetan eta ezagutzetan aberatsak diren esplorazioetarako.

Ondare bizia ere elementu nagusia izango da: Ziburuko frontoian antzinako jokoa den laxoa partida bat egongo da, eta historiaren betetako Errekoletok kaperan, Compagnie 24ren Diaboléro ikuskizunaren lehen emanaldi frantsesa egingo da.

Programa eskuzabal eta eskuragarria guzientzat, transmisioa, partekatzea, transformazioa eta elkartzeko gaituena gorai-patzeko.

ERREKOLETOAK AOIZ LES RÉCOLLETS ETA ZIBURUKO HIRIAREN PROPOSAMENAK

IRAILAREN 20A, LARUNBATA

9:30, 10:30 eta 11:30: Bisita gidatuak eta leiarrera sarbidea Phares et Balises-eko teknikariekin

10:00: Ziburuko eta Donibane Lohizuneko ibilaldi arkitektonikoa

10:00 eta 15:00: Maison des Blocs-eko Jakintza elkartearekin bisita - Egiategia eta edari baten dastatzea

10:00-13:00 eta 14:00-18:00: Errekoletok - Les Récollets Arkitektura eta Ondarearen Interpretazio Zentroaren bisita libreak
10:00-12:00 eta 14:00-17:00: Zokoako Semaforoaren bisita gidatuak Pays d'Art et d'Histoire-ko gida batekin (30 minutuero)

14:00-17h:00: Itsas-goialdeko itsasargiaren bisita libreak

18:00: Laxoa partida Luzaz Gazte elkartearen laguntzarekin - Ziburuko frontoia



IRAILAREN 21A, IGANDEA

10:00-13:00 eta 14:00-18:00: Errekoletok - Les Récollets Arkitektura eta Ondarearen Interpretazio Zentroaren bisita libreak

10:00: Ziburuko eta Donibane Lohizuneko ibilaldi arkitektonikoa

10:00-12:00 eta 14:00-17:00: Zokoako Semaforoaren bisita gidatuak Pays d'Art et d'Histoire-ko gida batekin (30 minutuero)

19:30: Compagnie 24ren Diaboléro Ikuskizuna - CIAP Les Récollets - Errekoletok

Beste bisita batzuk antolatu eta zehaztuko dira (Zokoako Gotorlekua, arrain enkantea, Bordagaino Dorrea, Aristide Briand eskola ohia, etab.).

DIABOLÉRO IKUSKIZUNA

COMPAGNIE 24REN (ORCHIES - 59)

Diaboléro ikuskizuna Compagnie 24ren eskutik - Errekoletok AOIZ - Les Récollets kaperan

Joan den azaroan, Compagnie 24-a Ziburun finkatu zen, Maurice Ravelen jaioterrian, Diaboléro sortzeko asmoarekin.

Aurten itzuli egingo da, modu naturalean, Frantzian egingo den ikuskizun honen lehen emanaldia zuekin partekatzeko; Boléro ospetsuaren oihartzun bizia.

“Gure Diaboléro-a idatzi dugu Ravelek bere Boléro-a idatzi zuen bezala: intimotik izugarria.”

Eszenatokian, zortzi diabolista bertuosok objektu berezi honekin duten lotura partekatzen dute: bidaia, jolas eta exijentzia-laguna. Keinu akrobatiko jarraipen batekin hasten dena pixkanaka-pixkanaka oldarraldi kolektibo baten bihurtzen da, Boléro-aren gero eta potentzia handiagoak eskaintzen duen koreografia milimetratu batean.

Omenaldia mugimenduan, sentikorra eta ikusgarria, keinuen menperatzea eta bertigoaren plazera uztartzen dituen.

Priam Pierret-en jatorrizko ideia batean oinarrituta.

Sormena eta antzezpena: Carla Carnerero, Yu Yin Lin, Victor de Bouvère, Camille Grappin, Pierre Ledoux, Nico Pires, Théo Scarito, Robin Spinelli

Idazkera eta zuzendaritza: Esther Mollo

🕒 19:30

📍 Chapelle du CIAP Les Récollets - Errekoletok

👤 Publiko guzia

📍 FR

© Victor LachéVictorien



© Komcebo



FESTIORGUES

CINDY CASTILLO-REN KONTZERTUA

URRIAREN 5A, IGANDEA

🕒 18:00

📍 San Bixintxo eliza

🎫 Tarifa osoa 18 €
Tarifa murriztua : 14 €
Dohainik 18 urte baino gutxiago dutenentzat

✍ Erreserbak
www.festiorgues.com
estekan eta Euskal Herriko Turismo Bulegoetako leihatiletan

Aurten, Cindy Castillo, belgikar organo-jotzaile ospetsua eta irakasle sutsua igoko da eszenatokira.

Namur-eko Institut Royal Supérieur de Musique et de Pédagogie-ko irakaslea eta Bruselako Bihotz Sakratuaren basilikako organo-jotzailea nagusia da, eta organoa beste arte batzuekin elkarriketan jartzea gustatzen zaio: dantza, bideoa, musika elektronikoa, eta abar.

Vincent Delbushaye narratzaile konplizearekin batera, Conquistadores izeneko kontzertu-kontakizuna eskaintzen du.

XV. mendetik XVIII. mendera, Iberiar musikak bizitza berri bat jaso zuen Mundu Berriarekin harremanetan jarritz.

Errepertorio bizia eta askea den honek eragin herrikoia eta sakratuak, eta Europako tradizioak eta beste leku batzuetako soinuak nahasten ditu.

Cindy Castillo-k eta Vincent Delbushaye-k irakurketa sentibera eta argitsua eskaintzen dute, kontakizun historikoaren eta emozio musikalaren artean.

Pantaila handian emango den kontzertu koloretsu honek tokiko ondare instrumentalaren bitxi hau ezagutzeko modu desberdina eskaintzen du.

festiorgues
Le chant des orgues Chrétiens
EUROPE
HERRIKOA
ORGANOAREN
KANTUA



ZIBURUKO POINTS DE VUE FESTIBALAREN EGONALDIA

URRIAREN 1ETIK 14RA

Euskal Herriko Hirigune Elkargoak gidatuta, tokiko udalen eta elkarteen laguntzarekin, Points de Vue festibalak hiri-artea bere forma guzietan goraiatzen du. Grafitiak, fresko erraldoiak, instalazio garaikideak edo lan diskretuagoak... edizio bakoitzak lekuko edo kanpoko hamar artista inguru biltzen ditu, eta espazio publikoak haien unibertso bereziekin betetzera gonbidatzen zaie.


2021etik, jaialdia Baionatik haratago hedatu da, hautatutako artistei tokiko udalerrri batean egoitza-egonaldi bat eskainiz. Aste batzuetan zehar, artista hauek espazioan murgiltzen dira, bertako bizilagunak ezagutzen dituzte eta harrera egin dien lurraldea islatzen duen lan bat imajinatzen dute.

2025ean, Ziburu aukeratua izan da egonaldi artistiko horietako bat errezibitzeko.

Hiriarentzat une garrantzitsu bat da, Ttiki trinketeko fatxada pixkanaka-pixkanaka eraldatzen ikusiko baitu estilo bizia eta narraitiboa duen Muraless Lian artista amerikarraren pintzelkadekin.

Paisaien, sinboloen eta giza irudien arteko elkarrizketa sortzera ohituta, Muraless Lianek freskoak istorio gisa aurkeztzen ditu. Naturak, memoria kolektiboak eta tokiko historiak eraginda, Ziburuko jendearekin bilduko da bere proiektua sentikortasun partekatu batekin elikatzeko.

Bi astez, trinketa aire zabaleko lantokia eta, iraganaren eta orainaren, ondarearen eta sormenaren arteko elkarrizketarako gunea bihurtuko da.



URRIAREN 10A, OSTIRALA

PRESQ

TKT KONPAINIAREN IKUSKIZUNAREN PUBLIKOARI
AURKEZTU AURREKO LEHENENGO EMANALDIA
(LE VESSEAUX-MÈRE - 07)

2021az geroztik, Ziburuko Hiriak aldizka hartu ditu konpainiak sormen-egonaldietan, Guy Poulou espazioan edo eskoletan. Denbora luzeko egonaldi hauek artistei esperimentaziorako, topaketarako eta harremanetarako aukera ematen die.

Urrian, Points de Vue festibalarekin batera, espazio publikoa jolastoki bihurtuko da. Urriaren 6tik 10era, TKT konpainia bere taulekin Ziburun instalatuko da bere hurrengo sorkuntzan lan egiteko: presq.

Izenburu enigmatiko honen atzean, bakarkako ikuskizun gogo-berotzaile bat dago, emanaldi fisikoa, biraka egiten duten konfidentziak eta gurpilen gaineko umorea uztartzen dituen. presq kultua bilakatu den objektu bati idatzitako maitasun gutun bat da, bizia eta labirintikoa: skateboard-a. Baina hau ez da figuren erakustaldi soil bat.

Huts egindako itzulenguru eta ongi pentsatutako hausnarketen artean, ikuskizunak zerk bultzatzen gaituen pentsarazten digu, beti, berriro ere. Zer dagoen keinuaren atzean. Ihes egiteko beharra. Arriskuaren deia.

Skate-a aitzakia bihurtzen da pasioaz, estiloaz, jausialdiez, obsesioaz eta askatasunaz hitz egiteko.

Bakarkako skater ikuskizuna, eritmo bizikoa, zaratzatsua, hunkigarria, dibertigarria eta zintzoa.

Bizitza bezalakoa, pixka bat.

Sormena eta antzezpena: Benjamin Colin eta Xavier Kim
Soinua: Jérôme Boillet edo Arthur Braesch
Meditazio eta sormen entrenamendua: Fredj Blin
Begirada panoptikoa: Vincent Bérhault
Estudiotik kanpoko entrenamendua: Toma Roche
Pyra-vulca eratzea: La Fabrique Skatepark
Estruktura erakitzeko: Pantxo

🕒 19h00

📍 Kokapena geroago zehaztuko da

🗺 Dohainik erreserbarekin 🗺 Publiko guzia

🇫🇷 Frantsesez

**PUBLIKOARI
AURKEZTU AURREKO
LEHENENGO EMANALDIA**

RESEAU 535EN L'ESCALE

AZAROAREN 24TIK 26RA

2022an, Ziburuko hiria Réseau 535-rekin bateratu zen; Akitania Berriko zuzeneko emanaldien operadoreak biltzen dituen elkarte bat.

2004az geroztik, sareak zuzeneko emanaldien profesionalen urteroko ekitaldi garrantzitsua den L'Escale antolatzen du.

Ekitaldi hauek Akitania Berriko talde artistikoen sorkuntza berriak ezagutzeko aukera ematen dute, eta, aldi berean, programatzaileen eta artisten arteko topaketak eta harremanak sustatzen dituzte. Urtero azaroan egiten den L'Escale topaketa eskualdeko hainbat tokitan egiten da, Akitania Berriko Eskualdearen, OARaren (Akitania Berriko arte eta kultura erakundea), departamentuetako elkargoen eta tokiko kultur agentzien laguntzarekin.

2025ean, L'Escale 10 urte baino gehiago pasa ondoren Euskal Herrira itzuliko da, Ziburun, Donibane Lohizunen, Bidarten eta Biarritzen publiko orokorrari eta profesionaleri bederatzi ikuskizun eskainiz.

ZIBURUKO
EGITARAUAN

RESEAU
535
spectacle vivant
nouvelle-âquitaine

18:00

Guy Poulou erabilera
anitzeko espazioa

6 urtetik aurrerako
publiko guzia

Mutua

AZAROAREN 24A, ASTELEHENA

ALEX ON THE WIRE KONPAINIAREN
(PÉRIGUEUX ETA BORDELE)

MAMAIN-S TENANT-ES IKUSKIZUNA

Bera da jasailea. Konfiantza dugu beragan, bultzatu egiten du, sostengatzen du, segurtatzen du. Baina bakarrik dagoenean, inor eraman gabe... zer gertatzen da berarekin? Banakako ikuskizun sentikor eta fisiko honetan, Jonathan Charlet-ek zirku-jasailearen figura aztertzen du, indar eta hauskortasunaren artean. Lurreratzeko oihala batekin lagunduta (eszenatoki atzean nonahi dagoen baina eszenatokian gutxitan agertzen den objektua), identitateari, norberak hartzen duen rolari eta oreka galtzeari buruzko emanaldi akrobatiko isila eskaintzen du.

Proiektuaren burua eta egilekidea: Jonathan Charlet
Zuzendaria eta egilekidea: Alexandra Schmitz
Kanpoko begirada: Hélène Leveau
Ikuspegi akrobatikoa: Clotaire Fouchereau
Moldaketak eta soinu sorkuntza: Matthieu Bonnetuelle
Produktzioa: Compagnie Alex on the Wire



© Studio Pichet

20:30

Errekoletok AOIZ -
Les Récollets kaperan

3 urtetik aurrerako
publiko guzia

FR

AZAROAREN 24A, ASTELEHENA

LÈVE UN PEU LE BRAS KONPAINIAREN
(LA ROCHELLE)

KIBI IKUSKIZUNA

KIBI ipuin kontalaria den amaxi bat izan daiteke edo hitz egiten duen kiwi bat. Baina, batez ere, KIBI konplizitate handia duen bikote bat da, dena joko bihurtzen duten bi lagun, ia ezer gabe mundu desberdinak asmatzen dituztenak, eta batez ere, dena alaitasunean.

Poesiarekin, dantzarekin eta umorearekin, KIBIk abentura sentikor eta alai ero batera eramaten gaitu, non fikzioa errealitatearekin nahasten den, eta non irudimena kolektibo bihurtzen den.

Belaunaldi guzientzako, elkarrekin bizitzeko bidaia bat.

Sorkuntza, zuzendaritza eta antzezpena:
Paul Canestraro eta Clément Le Disquay
Idazkera eta dramaturgia: Mickaël Délis

AZAROAREN 26A, ASTEAZKENA

CHRIKI'Z KONPAINIAREN ESKUTIK (LA ROCHELLE)

IMAGORI IKUSKIZUNA

Paper hutsez egindako unibertso batean, beste nonbaitetik datorren bidaia batek izaki arraroak topatzen ditu: tolestuak, moldatuak eta asmatuak.

Dantzaren bitartez, kontaktua, istorio bat, irekidura bat bilatzen ditu.

Dantzaren, arte bisualen eta musika klasikoaren elkargunean, *imagOri* hitzik gabeko ipuin bat da, non keinuak, testurak eta musika nahikoa diren desberdintasuna, jakin-mina eta lotura adierazteko. Une eten, delikatua eta murgilgarria ameslariak diren gazte eta helduentzat.

Zuzendaritza artistikoa eta koreografia: Amine Boussa eta Jeanne Azoulay
Antzezpena: Juliette Bolzer, Kevin Gratien
Soprano: Alice Duport-Percier
Argia: Nicolas Tallec
Jantziak: Claude Murgia
Eszenografia: Hannah Daugreilh



© Giulio Boato

© imagOri



EGUBERRI DA ZIBURUN

ABENDUAREN 5ETIK 18RA

- 📍 Hainbat toki
- 👤 Publiko guzia
- 📖 Dohainik erreserbarekin
- 🗣️ Frantsesez eta euskaraz

OA OFFICE
nA ARTISTIQUE
RÉGION
NOUVELLE-
AQUITAINE

Itzaletik argira, hau da Ziburuko urte amaierako programa honen gaia. Negua goxoki igarotzeko, irudimena esnatzeko eta elkarrekin harritzeko gonbidapena. Itzal-antzerkia, txotxongiloak, antzerki musikala, sorkuntza tailerrak eta bestelako une etenak osatuko dute adin eta gustu guzientzako diseinatutako programa argitsu hau. Utzi zaitez eramaten, harritzen eta txunditzen: Ziburuk bestak modu desberdinean ospatzera gonbidatzen zaitu, gozotasunean, bihurrikeriz eta magia-puskekin.

Egitarau osoa laster egongo da eskuragarri.



EKO PYRENEES DE CIRQUE

MUGAZ HARAINDIKO LANKIDETZA PROIEKTU BAT

EKOok Nazio Batuen 2030ko Agendaren eta Parisko Klima Akordioaren ildo nagusiekin bat egiten du, zirkuleragileak hausnartzera, esperwimentatzera eta sortzeko, aurkezteko eta bidaiatzeko modu berriak asmatzera pentsatu araziz.

Proiektuaren muinean: sektoreari bere eraldaketan laguntzeko ekintza zehatz sorta bat, bikaintasun artistikoari edo publikoarekin harremanetan jartzeari uko egin gabe.

Ekintzarako palanka nagusien artean hurrengo honek daude:

- ▶ Artista eta taldeen mugikortasunaren karbono-aztarna murriztea
- ▶ Talde artistikoen harrerarekin zerikusia duen ingurumen-inpaktua murriztea
- ▶ Mugikortasunaren balio artistikoa, kulturala, soziala eta ekonomikoa gehitzea
- ▶ Ikusleen mugikortasunaren karbono-aztarna murriztea
- ▶ Harrera tokien funtzionamenduaren ingurumen-inpaktua murriztea
- ▶ Ingurumen-erronkak eta gizarte-erronkak bateratzea

Testuinguru honetan, Ziburuko Hiria aktiboki parte hartzen ari da: tokiko bazkideekin bira kolaboratibo eta ongi gogoetatuak garatuz, eta bitartekaritza, sorkuntza eta zabalkundea konbinatzen dituzten proiektu gurutzatuak sustatuz.

Modu asko daude, erantzukizunez eta nahiaz, erritmoa, lanen zirkulazioa eta gure eguneroko bizitzan arteak duen lekua birpentsatzeko.

la urtebetez, Ziburuko Hiria EKO Pyrénées de Cirque proiektuaren bazkide izan da; zirkua sailean trantsizio ekologiko baten alde konprometitutako mugaz hara indiko lankidetzaren programa bat.

Ingurumen-arazoak gizarte-esparru guzietan dauden garai honetan, zuzeneko emanaldien sektoreak ere badu zeresana.

Europar Batasunak Interreg VI-A Espainia-Frantzia-Andorra Programaren (POCTEFA 2021-2027) bitartez batera finantzaturako kooperazio-proiektua



KULTURA BITARTEKARITZA PROIEKTUAK DENBORALDI OSOAN ZEHA

Hezkuntza ibilbide sentikor
eta konprometitu bat

2022an, Ziburuko Hiriak arte eta kultura hezkuntzari (AKH) buruzko hausnarketa sakon bat hasi zuen ama-eskola eta lehen hezkuntzako eskoletan. Ikuspegi hau, Euskal Herriko Hirigune Elkargoaren ikuspegiarekin batera egina, 2023an gauzatu zen hiriko eskolekin garatutako proiektu esperimentalen bidez.

Hilabeteetan, dinamika hau ikasleei proposatzen zaizkien hezkuntza-akzio guztietara (artistikoak, kirolak, zientzietakoak edo hizkuntzetakoak) zabaldu zen, 2024-2025 ikasturtearen hasieran, arte, kultura, zientzia eta kirol hezkuntza programa egituratu baten erdiesteko.

Benetako hezkuntza-programa gisa diseinaturik, programa honek udal balibideak (mediateka, programazio artistikoa, etab.) eta tokiko bazkideen sare bat (Euskal Kultur Erakundea, Euskal Herriko Orkestra, Ravel festibala, Pays d'Art et d'Histoire, etab.) erabiltzen ditu.

Helburua argia da: ziburutar gazteei autonomia, espiritu kritikoa, jakin-mina eta proiektu kolektibo esanguratsuetan parte hartzeko gogoia edukitzea laguntzea.



© Compagnie Kankarro



© Remi Angeli



© Cie d'hier

2025EKO IRAILETIK ABENDURA BITARTEKO PROIEKTUAK



MUSIKA HEZKUNTZA

Hiriko hiru eskoletako 4. eta 5. urteko ikasle guziek musikari profesional batek gidatutako asteroko ikastaroak jasotzen dituzte irailetik ekainera.

GABONETARAKO IKUSKIZUN BAT

Urte amaiera bakoitzean, hiriak Ziburun eskolatutako haur guziei ikuskizun irteera bat eskaintzen die, urtea biziki eder amaitzeko une partekatu bat.

SOINU-MATERIEN ESPLORAZIOA

LagunArte konpainiaren etorrerarekin eta bere *UP!* ikuskizunarekin (ahots eta objektuentzako kontzertua) batera, ama-eskolako bi mailak lau soinu-sorkuntza ikastarotan parte hartu ahal izango dute, eszenatokian aipatutako material eta emozioetan oinarrituta.

MEDIATEKA DESKUBRITZEN DUT

Ama-eskolako klase guziek François Rospide mediatekara joango dira bisitan, irakurketak egiteko, liburuetan murgiltzeko... eta batzuetan baita lehen mailegu bat egiteko ere!

MEDIATEKAN AUTONOMOA BILAKATZEN NAIZ

Lehen Hezkuntzako ikasleek mediatekarekin lotura hori mantentzen jarraitzen dute irakurketaren, jolasen eta maileguen bitartez, liburuekin duten harremanean autonomoak bihurtzeko helburuarekin.

ZIBURUKO ESKOLETAKO LITERATUR OBRA GOGOKOENAK

Hiru eskoletan haur euskal literaturari buruzko ikastaro bat eskaintzen da, hileroko hitzorduekin. Helburua: deskubritzea, irakurtzea, eztabai-datzea... eta «eragile» hasiberri bihurtzea!

POINTS DE VUE FESTIBALA

Urrian egingo den artista-egonaldiaren kariatara, gonbidatutako artistak, ikasleak eta bizilagunak hiri-artearen eguneroko bizitzara ekartzeko topaketak antolatuko dira.

ETA GEHIAGO...

Kirolean, arriskuen prebentzioan eta kultura zientifikoan oinarritutako proiektuek osatzen dute programa aberats eta diziplina anitzeko hau.

QR kode hau eskaneatuz programa osoa aurki dezakezu





FRANÇOIS ROSPIDE MEDIATEKA

IRAKURKET'ANIMAZIOAK

👤 0-4 urte

Hilero, elkartu gaitezen mediatekan, istorio eta haur-kantz osoturiko esnatze leun bat egiteko! Liburutegia ireki aurretik familiartean partekatzeke une bihozbero bat.

📅 Irailaren 13a, larunbata
Urriaren 18a, larunbata
Azaroaren 15a, larunbata
Abenduaren 13a, larunbata

🕒 9:30 (30 min)

🗨 FR + EUS

✂ Izena ematea beharrezkoa da

IDAZKERA IKASTAROA

Istorioak asmatzea gustatzen al zaizu?
Marraztea gustatzen al zaizu?
Eta ikastaro dibertigarri batean elkarrekin istorio bat sortuko bagenu?

📅 Urriaren 15a, asteazkena

🕒 14:00 (Iraupena: 1:30 min inguru)

👤 7 urte baino gehiago duten gazteentzako

🗨 EUS

✂ Izena ematea beharrezkoa da

« TRANBIAREN 100 URTE » ERAKUSKETA

“Jakintza” elkartearekin lankidetzan

Aztera egin dezagun denboran eta ezagutu dezagun irudien bitartez Euskal Kostaldeko kaleak zeharkatzen zituen tranbiaren historia.

📅 Urriaren 7tik 25era

🕒 Mediatekaren irekitze orduetan

👤 Publiko guzia

✂ Sarrera librea

👤 GURASOEI EUSKARAZ IRAKURTZEN LAGUNTZEKO IKASTAROA

📅 Data zehaztu gabe

LE MOIS DU DOC

2024an, Ziburuko Mediatekak Mois du Doc-ean lehen aldiz parte hartu zuen. Images en bibliothèque-k antolatutako eta Akitania Berriko Agence Livre, Cinéma et Audiovisuel (ALCA)k koordinatutako ekitaldi nazional hau azaroan egiten da. Publiko guziarentzako Zinema dokumentalaren aniztasuna sustatzea du helburu. *Egitarau osoa laster egongo da eskuragarri.*



SORKUNTZA TAILERRAK

Hartu pintzelak eta tabletak! BlinkBook kaiera liburu animatua, magikoa eta erraza da. Lehenik, margotzen dut, gero argazki bat ateratzen dut, eta marrazkiek bizia hartzen dute! Orrialdez orrialde, marrazkiek eta margoek bizia hartzen dute istorio bat kontatzeko.

📅 Irailaren 17a, asteazkena

🕒 14:00 (Iraupena: 1:30 inguru)

👤 6 urte baino gehiago duten gazteentzako

🗨 FR

✂ Izena ematea beharrezkoa da

Lehenengo egun hotzak iristen ari dira. Eta gure poltsa beroa fabrikatuko bagenu? Josketan hastapen ikastaro bat.

📅 Azaroaren 4a, asteartea

🕒 18:00 (Iraupena: 1:30 inguru)

👤 8 urte baino gehiago

🗨 FR

✂ Izena ematea beharrezkoa da

Jolastu gaitezen itzalekin eta argiarekin eta egin ditzagun paperezko txotxongiloak elkarrekin!

📅 Mercredi 3 décembre

🕒 14:00 (Iraupena: 1:30 inguru)

👤 5 urte baino gehiago

🗨 EUS

✂ Izena ematea beharrezkoa da

NON ETA NOIZ AURKITU AHAL GAITUZU?

🕒 Asteartea: 15:00-18:00
Asteazkena: 10:00-13:00
eta 15:00-18:00
Ostirala: 15:00-19:00
Larunbata: 10:00-13:00

📍 23 bis François Mitterrand
etorbidea - 64500 ZIBURU

☎ 05 59 47 12 93


✉ mediatheque@mairiedeciboure.com

🌐 mediatheque.ciboure

RÉSEAU
DES MÉDIATHÈQUES
DE LA RHUNE



LARRUNGO
MEDIATEKEN
SAREA



EKITALDIETARA ETORRI ZIBURUKO KULTURA



• Bizikleta



• Oharra :

Ikuskizun ezberdinetara etortzeko autoa partekatu nahi baduzu, jarri zaitetz harremanetan Kultura, Ondarea eta Elkarte Bizitza Sailarekin, beste ikusleekin harremanetan jar zaitzaten.



• Ziburutik igarotzen diren autobus lineak :



4 Hendaia Hondartza handia - Donibane Lohizune Atsedengunea



16 Donibane Lohizune Lafitenea - Ziburu Zokoako hondartza



17 Donibane Lohizune Alturan - Ziburu Zaldi Xurito



26 Hendaia Orangers - Donibane Lohizune Atsedenekua

SAN BIXINTXO ELIZA



ZOKOAKO GOTORLEKUKO
HONDARTZA



TTIKI TRINKETEA



ZOKOAKO
FRONTOIA



MEDIATEKA

AOIZ ERREKOLETOAK
LES RÉCOLLETS



GUY POULOU ERABILERA
ANITZEKO ESPAZIOA



INFORMAZIO PRAKTIKOA ETA ERRESERBAK

NOLA EGIN ERRESERBA?

Egin erreserba zuzenean Kultura, Ondarea eta Elkarte Bizitza sailean:

- ▶ Telefonoz
- ▶ Posta elektronikoz
- ▶ Linean www.billetterie-ciboure.mapado.com-en

PUBLIKOARI HARRERA

Kontuan izan, eserlekuak ez daude zenbakituta (eserleku libreak).

NON ETA NOIZ AURKITU KULTURA, ONDAREA ETA ELKARTE BIZITZA SAILA?

🕒 Asteartetik ostiralera, 8:15etatik 12:00etara

📍 Camille Jullian plaza - Denak Batean eraikina - 2. solairua - 64500 ZIBURU

☎ 06 10 75 45 61

✉ animations@mairiedeciboure.com

📘 cultureciboure

📷 ciboure_ziburu



Irudi eskubideei buruzko oharra:

Zuk edo zure seme-alabak Ziburuko Hiriak antolatutako ekitaldi batean parte hartzen duzue. Testuinguru horretan, argazkiak edo bideoak egin daitezke ekitaldi hau ilustratzeko eta sustatzeko.

Hiriaren argitalpenetan argitaratu ahal izango dira, bai paperean (aldizkaria, liburuxka, eskuorria, gida, etab.) bai digitalean (webgunea, sare sozialak, etab.), eta tokiko komunikabideekin partekatu ahal izango dira (Sud-Ouest, etab.).

Argazki edo bideo hauetan agertu nahi ez baduzu, jakinarazi iezaiozu mesedez tokian dagoen antolatzaileetako bati.